

«Hitzei beste leku batetik eusteko gogoa neukan»

Aurrekariak: disko bat, aurkezpen kontzertu batzuk eta horietan sumatutako giro beroa. Zure aurrekari penalakekin zuzenean lehen saioak egin ondoren elkartu gara Anarirekin. Elkarrizketa egin bitartean agertu dira zenbait arma, animaliairen bat eta lagun asko.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

Argazkia: Dani Blanco



Tituluak deitu zigun arreta diskoa entzun baino lehenago ere: konkretuagoa da, ez da berdina disko bati *Irla izan* jartzea edo *Zure aurrekari penalak*...

Beste eremu batzuetako hitzak hartzeko ariketa kontzientea egin dut. Hemen zenbait hitz hainbestetan esan ditugu, sugerentea iruditzen zitzaidala horiek erabiltzea. *Irla izane*-tik neukan gogoa beste hizkuntza bat erabiltzeko, hitzei beste leku batetik eusteko.

Klima sozialak eragin al du?

Bilaketa pertsonala izan da, baina egia da *Armagabetzea* bezalako letra bat orain egin dezakezula. Kanta arin bat, esanez “entregatu nituen armak eta zuloak non neuzkan...”. Bertigoa eduki nuen kanta horrekin, baina bestela ez. Nire bidearekin izan du zerikusia: hasieratik asko erabili izan ditut metaforak, bai naturarekin bai beste elementu batzuekin, niretzat beti oso sugerenteak dira.

ERDIKO KAIERA ◦ ANARI

Kantetan orain hitzak duela garrantzi handiena esan zenion Juan Luis Zabaleri *Berrian*. Duela urte batzuk melodia lehenesten zenuela gogoran dut...

Musikari ikaragarriko inportantzia ematen diot, baina niretzat kanta da bakarrik gitarrekin, ahotsarekin eta hitzekin egiten dudana hori. Egoera horretan bilatzen dut, egoera horretan ematen dut aurkituztat. Eta egoera horretan konturatzen naiz ez dizkiudala melodiari ematen letrari ematen dizkiudana bueltak. Kanta da halako gauza bat... zuk egiten duzu letra, egiten duzu doinua eta, benetan osatzen denean, derrepente “klak” egiten du; eta ez duzu ikusten non separatzen diren bata eta bestea. Badaude beste zenbait, ondo ikusten dituzun arren, imajina ditzakezunak beste letra batekin. Baina niretzat hori da, melodia horri pegatuta geratuko dena. Eta hor hitzek badute garrantzia.

Noski, ulertzen dut beste estilo batzuetan ez dela hala, niri ere gustatzen zaizkit bi esaldi dituzten kantak jotzen dituzten taldeak, beste dena instrumentuekin esaten dutenak.

Nolako soinua zeneukan buruan estudioara sartzerakoan?

Diskoa egiten hasten naizenean ez dut batere musikariki entzuten. Ematen du zuk daukazun ideia entzuten duzun horretan aurkituko duzula; Karlos Osinaga *Txapek* askotan esaten du, jendea grabatzera joaten denean badaukala disko bat, nolabait produkzio-eredu gisa erabiltzen duena. Nik behin ere ez. Disko honetan neukan sentsazioa zen kantak linealagoak zirela, ez zirela hain gitarrekoak —nahiz eta zenbaitetan bost eta sei gitarra dauden—. Gero, hasieratik pasa nizekion Javi Manterolari. Banekien berak ambienteak egingo zizkiola. Prestatu genuen halako oinarri neutro bat, lasaia, gero Ager Insunza, Ander Mujika, Javik bera... sartu ahal izateko. Kolaborazio horiek beti entzuten ditut lehen aldiz estudioan eta kasu honetan, uste dut Javik asko jo duela diskoan, bere gitarrak asko eman dio. Adibidez, *Orfidentalak* piano kanta bat zen, bat-batean bera etorri, hasi riff hori egiten eta buelta eman zuen. Baina ez dago bilaketa konkretu bat soinuan, izan zitezkeen beste modu batera.

Badaude zure aurreko lanekin halako ispilujokoak. Arkimedes aipatzen duzu hemen, “Diogenesen sindromea” berriz *Irla izanen*...

Kasualitatez gertatu zen kutsu eruditu hori [barre egin du].

Hitz egin dezagun diskoko faunaz. “Animalia izua”-ren aipamenak Nacho Vegasek *La gran broma finalen* esaten zuen zerbait ekarri dit gogora.

Asko gustatzen zait Vegas, asko entzun dut eta aditzen dizunak eragiten baldin badizu, bera izan daiteke erreferentzia bat. Bere kanta borobilak dauden kantarik borobilenak iruditzen zaizkit. Orain Espainian kristoren maila dago letratan, Sr. Chinarro eta...

Diskoa idazten ari nintzela argitaratu zenean batek esan zidan, “barkaltzera joan gara leku batera eta ondoko mahaian hizketan ari ziren zein animalia agertuko ote zen zure diskoan oraingoan”. Erantzun nion: “Ba oraingo honetan animalia ni naiz”. Horri buelta asko ematen aritu naiz.

Oreinek ere eman dute zeresana...

Beti esaten dut gauzarik sinesgaitzenak benetan gertatu egiten direla. Orein bat errepidetan gurutzatzen zaizunean sentitzen zara Sigur Ros-en bideo batean bezala. Ba, behin bagindoazen kotxean eta gertatu zitzaigun, begira geratu zen gainera [barre egin du].

Animalia kontuekin segitzeko: *Otzanak* berezia iruditu zait, ez da egiten duzun lehen dua baina badu zerbait...

Eneko *Mobydickek* ere izango du zerikusirik horretan. Dese-

raikitako kanta da, bi edo hiru eratan jo genuen entsegutan: lehenengoa oso gitarroa eta mantsoa zen, “Mark Lanegan” deitzen nion maketa fasean. Baina diskoarekin aurrera egin ahala, ikusten genuen kanta asko zeudela gitarrekin; eta orduan hustea erabaki genuen. Eta halako batean, Mariano pianoarekin atzetik zerbait egiten ari zen eta hori utzi genuen aurrean. Askotan horrelako erabakiak hartzen dituzu, zerbait diferentea egiteagatik. Hustuketa horrekin bateria pila bat aditzen da eta nik uste Enekok kristoren rolloa eman diola.

2013ko Durangoko Azokan izan zenuten halako disko elkartruke bat. Nola sortu zen kanta hau elkarrekin egiteko asmoa?

Horren aurretik ez genuen elkar ezagutzen, ni bera zuzenean ikusita nengoen arren. Gero berak deitu zidan Usopopen Johnny Cashen bertsio bat egiteko eta... azkenean disko bat egitea kristoren aitzakia da. Atzera begira jartzearan pentsatzen dut zenbat jende jo duen nire diskoetan, ilusioa egiten dit, hori hor geratzen da nahiz eta gero zuk bakarrik joko duzun. Enekorri ere ilusioa egin zion, amari deitu ziola esan zidan, “Athletic-etik deitu

“Kantetan kontraesanak bilatu egiten ditut, metodo bezala erabiltzen dut: Gauzei beste alde batetik begiratzea sekulako iturria da idazteko”



izan balidate bezala” zegoela esanez [barre egin du].

Zurekin aritzen diren musikariei ematen diezun garrantzia kontzertuetan aurkezteko moduan ere islatzen da: “Anari gara” esan ohi duzu.

Hori konturatzeke irten zitzaidan lehen aldiz. Uste dut Bartzelonan jotzetik gentozela, eta kanpoan beti galdetzen dizute “¿vosotros sois de la banda Anari?”. Nik uste dut horrelako batek bueltan hasi nintzela “gabon, Anari gara” esaten. Baina egia da: ez bakarrik sentimentalki, artistikoki ere banda gara. Produkzio aldetik ere, normalean bakarlariren lanetan ahotsa askoz gorago egoten da, zenbait jendek esaten dit nire diskoak deserosoak egiten zaizkiola banda gehiegi entzuten delako... Produzitu ere banda bezala egiten dugu, zuzenean ere zikindu egiten dugu.

Rafael Chirbes idazlea Donostian izan zen duela pare bat urte eta esan zuen berak nobelak idazten dituela bizitze hutsagatik pilatzen duen lokatza gainetik kentzeko. Zertarako egiten ditu kantak Anarik?

Juxtu *En la orilla* irakurtzen ari nintzen disko hau idazten hasi baino lehen eta joan den asteen [ekain erdialdean] heldu nion berriz. Ikaragarria iruditzen zait liburu hori. Disko bakoitzean nitaz eta nire momentuaz idazten dut, eta ez zait ateratzen jai arratsalde eder bati buruz idaztea. Adibidez, *Otzanak* saiakera bat da esplikatzeko zerbait edo norbait aukeratzen duzunean beste dena uzten duzula; eta aukera hori berresten joan behar duzula; fideltasunari buruzko kanta da. *Ametsen eraiste neurtuak* zutaz espero zenuenaz hitz egiten du... Oso esplizituak direla uste dut. Agian topikoa den arren, denak gara nahiko antzekoak, gure kontraesan guztiekin. Eta nik

“Aurkezpen kontzertuak diskoak presentatu eta bizpahiru astera egin ditugu eta jendeak kanta guztien letrak zekizkien. Baten batek esan zidan, ‘disko berria egin beharko duzu’”.

kantetan kontraesanak bilatu egiten ditut, metodo bezala erabiltzen dut. Saiatzen naiz gauzei beste alde batetik begiratzen eta hori sekulako iturria da idazteko.

Gero izenak jartzea dago. Adibidez, zerbait pasa duzunean, ez daukazunean oroitza onak, nola deitzen diozu horri? Diogenesen sindromea ikusten duzu nonbait eta zure buruari esaten diozu hori dela, “Diogenesen sindromea, baina buruan bezala; zergatik gordetzen ditut nik gauza hauek? Ez didate ezertarako balio”. Horrela egiten ditut letrak.

Publikoaren enpatia sumatzen duzu? Maiztean Donostian egin zenuen kontzertuan entzuleak oso bero zeuden...

Jendea kantatzera etortzen dela sentitzen dut, bere barrutik pasatzen dela egiten duguna. Aurkezpen kontzertuak diskoa presentatu eta bizpahiru astera egin ditugu eta jendeak kanta guztien letrak zekizkien. Baten batek esan zidan, “disko berria egin beharko duzu”.

Impresioa dut zure publikoa nolabait zure ibilbideari segika sortzen joan dela. Horrela bizi duzu?

Nire publikoa aldatu egin da, lehen nagusiki erreferentzia musikaletatik zetorren entzuleak nituen eta azkenaldian berriz, esango nuke letretatik iritsi direla entzule asko. Horren kontziente naiz. Bidehutsen barruan askotan hitz egiten dugu diskoak gutxi saltzen direla eta beti esaten diot *Txapi*, Lisabö entzuten duen pertsona batek 40 disko deskargatzen dituela eta tartean Lisabörena. Musikazale amorratuak dira. Anariren entzule mota batek berriz, urtean disko gutxiago erosten ditu, baina erosi egiten ditu, eta letra nahi dute eduki, eta... Gauza ederra da. ■